

BIZKAIERAREN AUZIA

Neure euskalkia dudan bizkaieraren esparrutik deihadar kexutiak entzuten ditut Nahigabez entzun ere, tirabira hauetatik gauza onik etorriko ez denaren susmo txarrez. Badira ahots hauek euskara batu jaio berriari zemaika somatzen dituztenak ere. Beste zenbaitentzat, ordea, arazoak alderantzizko norabidea dakarke: euskara batutik omen dator eraso; euskalkiak eta azken batez euskara bera ondamendira amilduko duen enbata, «el batua», «euskerantoa», «sasi batasuna»; inon mintzatzen ez dena. Inongoa ez dena eta guztioi goitik behera derrigorrez ezarri nahi digutena. Behin-behinekoa. Kendu-ipinikoa. Hezur-mamirik gabea. Zenbait buruberoren kaxketaldiak sorturiko emaitz galgarri horrek kolokan jarriko omen du bizkaiera, eta beraz, euskara Bizkaian, hemen ez baita euskalkia (bizkaiera) baino besterik...

Joan dan ur korronteari madarikazioz garraxika ekitea alper-alperrikkoa da. Askoren jokabideari, iltze-burua bailitzan, haizeari mailukadaka ekitea bezalatsu deritzat.

Dagoeneko, nik neuk erre-sunda somatzen dut auzi honetan. Keru mikatza; ezer onik ez dakarten erostak; betiko leloa; mozkorrenaren lokatz arteko dantza. Euskal Herrian herri-egitamu bakar eta batu baten hautapena egina dago jadanik abertzale ikuspegitik. Herri egitamu bakar eta batu honi, hizkuntz-egitamu bakar eta batu bat dagokiola dirudi. Hala ere horrek ez du esan nahi inola ere euskara batua eta euskalkiak elkarren au-

urrez-aurre eta muturka jarri behar ditugunik. Arazoa, nire kontzientzia, ezin genezake bide arteko hautapen legez plazaratu: euskara batua *ala* euskalkiak. Bata eta besteak dira beharrezko, elkarren osagarri eta aberasgarri baitira. Bataren eta besteen erabilera finkatu eta batipat ideak argitu beharra legoke: noiz tokian tokiko hizkuntza (euskalkiak) erabili eta noiz hizkuntza standarra (euskara batua). Euskalki bakoitzaren isuria euskara batuan. Itsaso berean biltzen diren ibai guztien isuria ez da berdin-berdina izaten. Hizkuntzaren kasuan, berriz, geure-geurea izanik, guztion ondasundegitik hornitu beharko litzateke, euskalki bakoitzaren emankortasunez alderdikierarik gabe baliatuz. Guzti hau, hizkuntzalarien aholkuz, jakintsuen gidaritzapean eta idazle bikainen eraginez, urratsez urrats finkatu behar litzateke; arazoak sc-takeriaz tokiz erauzi gabe, noski!

Sarreratxo honetan, handi-handika zirrimarratu besterik ez dut egin hizkuntz-auziaren gaine-gainetiko ikuspegia.

Bizkaieraren auzia jarri diot izenburu, auzi hau, euskara batuari kontrajarririk noski, hainbat bider plazaratua izan baita. «Auzia» diot, euskara batutik aski urrundua, bizkaieraren egoera eta etorkizuna txit kezkarri baitira askoren ustez. Arazo bezala atera ohi da eztabaidara bizkaieraren auzia eta euskara batuaren aurrez-aurre jarri ere bai, honek baztertu duen euskalki pobrea bailitzan.

«Bizkaiera» aipatzen da, baina bizkaieraren aniztasuna oso nabaria da. Ez dugu bizkaiera baturik, ez bizkaiera idatzian eta ez gutxiago oraindik mintzatuan. Idatzizko tradizioan, joerarik indartsuena, Markinaldeko azpi-euskalkia egiten zutenena da, izenik aipagarrienak Mogeldarrak, Prai Bartolome, Astarloa eta Uriarte izanik. Baina beste aldetik, Anibarroren joera ere hor dago. Arratiarra izan arren, hara-honaka sermoigintzan ibilia zenez gero, bere azpi-euskalkiaren kutsu nabarmenik behintzat ez du ageri. Prai Bartolome ere, sermoigintzaren haritik Euskal Herriko bazterrik gehienak arakatua zen, baina hala ere Bizkaiko ekialdeko azpi-euskalkia garden-garden dario haren lumari. Euskal Herriko toki ezberdinetan -bat hautatzekotan- ulerko-

rrena zela uste zuen, eta ez zuenitsu-itsuan esango, bazuen horretan esperiantziarik eta:

«Verbeetia imini dot neure erricua daquidana. Eusqueraco guztietati apaindubeena, ederreena ta eztitsubeena izan ez arren, izan leiteque, Euscaldunen baztar bateti bestera, eche guztietan dei eguinda, igarota, cer naidaven, onduen zaarrai ta gaztai aituco deutseena, ta adierazoco deutseena. Alan uste dot. Ta jazojat Naparruan, Quiputzetan ta Vizcaian, eldu nasan lecubeetan» (ICAs.)

Beraz, bizkaiera literarioaren sorreran bertan ere, batasunik eza nabari da. Euskara mintzatuan zer-esanik ere ez Hemen, ahoa ireki orduko ezagun da nor-nongoa den, bere hizkerak salatzen baitu.

Jo dezagun bizkaiera literarioaren sorrerara. Ez ditugu orain gogotan hartuko herri-eresi eta ahaide nagusien giroko kanta zaharrak; ezta 1596.eko «Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declarados en Romance» ere. Bctoiara, Rafael Mikoleta, Arzadun ditugu bizkaiera zaharrean beste izen aipagarri batzu, «Viva Jesus» dotrinaren egilearekin batera, baina hauek euskara zaharraren altxor bitziak arakatu nahi dituztenentzat uzten ditugu.

Jakintzuek diotenez, bizkaiera literarioaren benetako jarioa XIX. mendearekin bateratsu hasi zen. Elizgizonik ageri zaizkigu abiapuntu horretan, baina besteak bestc, hiru izen aipatu ohi dira bizkaiera zaharraren letretan esanguratsuenak edo pisudunenak legez: Juan Antonio Mogel, Pedro Anibarro eta Prai Bartolome Madariaga. Bizkaiera sustraitik aztertze kotah, hauen eta inguruko beste idazleengana jo behar nahi ta nahiez. Lantxo honek gehiagotarako ezin dezake eman eta handi-handika idazlc hauen fonctika saila, morfologia eta joskera nahiz lexikotik erekasurik nabariena aipatzen saiatuko naiz, gaurko bizkaiera baturako zenbait ondorio atercrik.

Fonetika saila

Mogel, Prai Bartolome eta ekialdeko bizkaieraz baliatzen

diren idazle zaharrak ditugu aide batean eta mendebaleko bizkaierakoak bestean.

Fonetika aldetik lehen-lehenik ikus daitezken mugarriak honako hauek izan ohi dira: kontsonante sabaikariak eta armonizazio bokalikoa. Kontsonante sabaikarien aldeko edo eta aurkako joera. Hortxe dagoke azpi-euskalkien sailkapenerako lehen giltza. Bizkaierari gagozkiolarik, Arratia eta Txorierri aldeko azpi-euskalkia erabat sabakarien aurkakoa da. Markina aldean hasi eta Gernikaldean zehar kostaldetik Bakiora arte aide batetik; eta Gipuzkoako bizkaieraren ingurunetik, Elorrio eta Atxondon zehar Durango Merindadera eta hemendik Zornotzara joz bestetik, kontsonante sabaikarien joera hori nagusitzen da. Idazle zaharren, hala ere, gauza bitxiak gertatzen dira: Prai Bartolomek, grafian behintzat, bustidura eta hots sabaikari gutxi erabiltzen du. «LL» sarri samar darabil -ez beti- baina «N» nekez *baino, baina, gainian, cinuan* (= esaten eban), *ipini, imini, Espainaco legueetan, diversinoetzat, inocentiac, inoc, soinuba, tambolina, oinaquin, cristinau, dinot, maldecinoe, errequina, condecinoiac, lainotsu, esquini, burdina* etab. «N» nekez, baina noizbait itzuri ohi zaio haren lumari: *seifia, senalia, senalau, cetaraguino^enganuzco, sefioraac*. Legez kanpo baileuden, oso bakanak dira «N»ak Prai Bartolomerengan; «LL» oster, parra-parra darabil; «LL» eta «L»ren arteko zalantza duela dirudi, ingurune berberetan ere behin bata eta behin bestea baitarabiltza: *illten, illundu, mutillac, nescatillia, caballeruac, pillua, ollua, ill, davillenac, daravillenac, milla*, baina «L»dunak ere erruz darabiltza: *mila, gentilac, ibili, ibilera, davilen, evilen, bilosic, maquiliaren, ixilic, muiilez* etab. Idazle honek, sabaikariak ahalbait gutxien sartzea idaz-arautzat duela dirudi. Mogelek, ordea, bustidurak erruz darabiltza. «Dinozu», «imini», «inos», «aitatu guinajo» etab. la salbuespentzat har genitzake.

Anibarrok, Mogelek bezala edo areago, jo ohi du kontsonante sabaikarietara. Harrigarria da bestalde, Arratiako azpi-euskalkiaren ezaugarrietariko bat bustiduren urritasuna baita. Halabaina arestian esana dugu sermoigintzan hara-honaka ibilia dela, haren euskarak landua eta bizkaiera batu antzekoa baitirudi.

Armomizazio bokalikoa

Zeri deritzagu armonizazio bokalikoa? Zenbait bokal, elkarren ondoari gertatu arren, ez dira elkarren kideko. Hiatoan ez dute elkar ondo hartzen. Beste batzu, ordea, molderrezagoak ohi dira; elkarren kidekoago. Hori dela eta, lexemari artikulua edo eta bokalez hasten den deklinazio-atzizkia eransten zaionean batipat, aldaketak sortu ohi dira, bikote moldakaitzen ordez molderrezagoak sartuz; fenomeno hauei armonizazio bokalikoa deritzete zenbait linguistek.

Nominatiboan -eta ergatiboan ere bai, jakina- garbi ikus daiteke lexemaren amaierako bokala eta artikuloa elkartzerakoan zer gertatzen den. Lehen hurbilketa batez zera esango nuke:

-a + a: ez dute irauten. Gaur eguneko araua bizkaiera idatzian, disimilazioa eginez, -ea egitearen aldekoa da: alaba + a = alabea. Arratia eta Txorierriko azpi-euskalkiaren berezitasuna, bokalen itxiturarik ez egitea da eta Anibarrok erregela hori bete ohi du. Bizkaieraren ekialdeko azpi-euskalkiaz baliatzen direnak, ostera, -ia egin ohi dute: alab.ia. Lexema «-e»z amaitzen denean ere gauza bera: bide + a = bidea (Anibarrok), bidia (Mogel, Prai Bartolome...) -a + a (pluralean), biek irauten dute: alabaak, inesi-bo kasuan ere bai: plazaan, arimaan (Anib., Prai Bart.)

-i + a: biek irauten dute aldaketarik sortu gabe Anibarro-rengan. Ekialdeko bizkaiera darabiltenen artean, ostera, Yod-en eraginez, erdikontsonante sabaikaria sortu ohi da, grafiaz honela adierazten delarik: «-ja»: ezti + a = eztia (Anibarrok), eztija (Prai Bartolome...)

-o + a: -oa (Anib) -ua (Mogel,...): asto + x astoa (Anib.)
asto + a: astua (Mogel).

-u + x -ua (Anib.) -uba (Mogel,-): bum + x buma (Anib.)
bum + x buruba (Mogel,_)

Bokal bikoitzak

Aldraac, penaac, nescaac, ibileraac, alabaac, millaac, arimaac, ber-

baac. Banaan, santaan, preminaan, tiraan, postaan.

Beste ingurune batzutan: *edaari, chaarric, iraasten, aarchu, escaari, naasteco, luurrez, jaaten ta edaaten, laaneguijagaz, batzaarretaco...*

Bokal bikoitzak gehien erabiltzen dituen Prai Bartolome da ezpairik gabe. Honen idaz-araua zera da: «a»z amaituriko lexe-mari pluraleko deklinazio-atzizkiren bat eranstea, bokal bikoitzak gertatzen dira elkarren ondoan: plaza + etan: placeetan.
dantza + en: dantzeen.

Beste horrenbeste egin ohi du «au» amaituriko mailebuzko partizipioei «-eta» atzizkia eranstea: *olgau + eta > olgaeta > olgeeta*

compesau + etan > compesaetan > compeseetan

prestau + etan > prestaetan > presteetan

Hala ere, behar ez denean edo gehiegi darabiltza bokal bikoitzak, batez ere loturazko erdikontsonante sabaikariak («ϕ» eta «b») tarteko direnean: *cereguineen, aberatseentzat, laneetan, gueijeenac, santubeen, jotsijeetara, leguizaneen, Cristinaubeen, zorrotzeenac, indartsubeenac...*

Ekialdeko bizkaiera darabiltenek, adizkietan ere erruz jotzen dute bokal bikoteetara, honetan ere Prai Bartolome ugariena izanik. Kasu batzutan «e» bakarra ala bikoitza, bereizgarri gertatzen da singularren eta pluralaren artean: esan *dabena* (= esan dauana), esan *dabeenak* (= esan dutenak), baina beste askotan ez dago nahasketa-biderik eta hala ere bokal bikoitza ageri da: *ezteutseezu* (J. A. Mogel), *oi zalbiltzee* (J. A. Mogel), *baleutsubee* (J. J. Mogel), *ditubee* (J. J. Mogel), *citubeen* (J. J. Mogel), eta Prai Bartolomek txitean-pitean. Ez legoke «e» bikoitzaren beharrik, *HARK* sujeto dela, EBAN eta CITUBAN erabiltzen badakite eta, baina aditz nominalizatueta bokala ixten dutenez, hortik letorke zalantzabidea: *daben legez* (hark) *dabeen legez* (haiek), *eguiten davela pecatu* (hark) / *eguiten daveela pecatu* (haiek).

«F» kontsonantea

«F» ez da izan, kontixu, Gipuzkoaldeko eta Markinaldeko euskaldunen begiko. Benin honez gero, nahiko bertakoturik dagoela dirudi, «f» eta «p»ren arteko alternantzia ematen delarik. Bizkaierazko idazle zaharregana joz gero, joera bietakoak aurkituko ditugu: «f»ren aldekoak eta «f» fonema arrotz eta alperrikotzat dutenak. Gure egunotan «h» dela ta dugunaren antzeko tirabira zutela dirudi. Juan Antonio MOGEL eta Prai BARTOLOME «f» fonema onartzen ez dutenetarikoak dira bete-betean. Mogel-ek, euskaldun hutsen ahoskatze modua aipatzen du arrazotzat eta Prai BARTOLOME-k, jakintsuak eta euskaldun hutsen ahoskatze modua ere bai. Aiiibarro, «f»ren aide dago argi eta garbi, Euskal Herriko tokirik gehienetan ondo sustraitua zegoela adieraziz.

ICASQUIZUNAC deritzan liburuaren sarreran irakurleari eritziak eskatzen dizkio Prai Bartolome-k. ICASQUIZUNAC saileko lehen liburuaren harreraz jakitun egon nahi luke, baita eritziren batzuk jaso ere, bigarren liburuan akats berberetan ez jausteko. «F»ren ordez «p» erabiltzearen akatsa egozten diote. Hona Prai Bartolomeren erantzuna:

«Eguija da, erantzun eustan batec: «p» iminten nevala «f» le-cuban: baina, jaquitunac dinuenez, ta euskaldun utsai entzuten jacuenez, ez dauca «f» cer eguinic gueure eusqueran».

Juan Antonio Mogelek ere ez du «f» onartzen. *Alferra*, *afarria*, *ifini*, idazten dutenak oker daudela dio eta euskaldun hutsak ahoskatu ohi dutenez, «p»z idatzi behar liratekela: *alperra*, *aparia*, *ipini*. Euskaldun hutsek, gaztelaniaz mintzatzen den tokiren bate-tan egonak ez badira, edo eta eskolan ikasi ezik behintzat, ahoskatu ere ezin dutela «f»rik, *Pemando*, *Prandsco*, *piesta*, *puncion* eba-kirik. «F» fonema arrotz eta alperrikoa dena garbi dagoela dio, euskara bakarrik dakitenekin saioak behin eta berriro egin ondoren, «p»z trukatu gabe ezin baitute ahoskatu «f»dun hitzik. «Los chicuelos cuando empiezan a aprender el abecedario en la escuela Uegando a la^" dicen *epe*, y cuesta trabajo el ensefiarles a

decirj como los castellanos» (J. A. Mogel: Peru Abarka).

Anibarrok, 1800 aldean honela idazten dio Mogeli: «Cada vez achica Vd. mas el bascuence dc Marquina... afiade Vmd. que en Marquina no aciertan a pronunciar la f, y que se borre del alfabeto bascongado, y nuestros escritores sucesores si se conforman con esta regla yran escribiendo *pedea, pielac, pina*, etc. Es comunisimo su uso en toda Bizcaya; usan de f en Navarra y Francia, y Guipuzcoa ha pegado la p a Marquina...» (L. Mitxelenak Fonetica Histdrica Vasca-n dakarren aipamenetik jasoa).

Azkuek eta L. Mitxelenak batez ere, luze dihardute puntu honetaz. Biak bat datoz, fonema arrotza izan arren, «f», beste edozein fonema bezala, ondo sustraitua dagoela euskaran autor-tzerakoan.

XVIII. mendean zalantza zegoen kontsonante bion artean eta beste batzuren artean ete nahasketa nabari omen dira KAR-DABERAZ-ek salatzen duenez: «Ala Provincian (= Gipuzkoah), nola Nafarroan, ta are gueiago Bizcaian, itz-eguiteco, edo aoz esatean, itz asco laburtcen dira, baita letra asco trucatu ere: b, d, f, p, t, bata bestearen lecuana: ala becatua, pecatua, farrez, barrez; ifini, ipini, ibeni; oficio, opicio; alferric, alperric,... ta onela beste asco, bana jaquinac eta errazac uso ta costumbriac gucia eracustendu» (Mitxelenak Fonetica Histdrica Vasca-n aipatua).

Bizkaiko ekialdeko idazle zaharrek, mailebuzko hitzetan behintzat, «f» erabiltzen dute eskuarki. Uriartek, Astarloak eta Juan Jose Mogekek ez dute engararik, mailebuzko hitzetan behinik behin, «f» erabiltzeko. Juan Antonio Mogeli, ordea, ez zaio «f»rik itzurtzen, elkarrizketa baigorritarraren ahotan-edo jartzen duenean izan ezik. Prai Bartolomek zeharo baztertzen du kontsonante hori, eta erdarazko «f»dun hitzak ugari sartu arren, «p»z trukatu ohi ditu beti: *opendidu*, oitura *impamiac*, *Propeta paltsuen*, *San Francisco Sales*, *opicijqz*, *popuertza*, *apicinoia*, *paltia*, *paltau*, *piesta*, *pabore*, *pandanguan*, *compeseetan*, *pmtia*, *Copradijeetaco*, *pomicacinoia*, *pamelija*,... *empin*. Beraz, jatorrizko hizkuntzan «f» bere-berea duten hitzak «p»z idatzirik ematen dizkigu euskaraz. Kasu bakarra

aurkitu dut «f»z idatzirik: «*Faraonen* escu gogorretati...»

«f» horrelaxe idazten dute Bizkaiko ekialdeko idazle guztiok eta belare legez ebakiko zutela ziurtzat eman genezake, orain ere hala ahoskatzen baita. Ez izen arruntetan eta aditz-partizipioetan bakarrik, baita aditz laguntzailea'ren adizkietan ere: *etorri jaco...*

Anibarrok, oster, ez du «j»rik erabiltzen «Y» baizik, ESCU LIBURUA-ren sarreran horren arrazoia ematen duelarik.

Aipatu digu «i» eta «u» bokalez amaituriko lexemek «-ija» eta «-uba» ematen dutela ekialdeko bizkaiera zaharrearari. Hala ere URJA.RTE-k ez du erregela hau erdizka baino betetzen. «-ija»ren kasuan bai, baina «-uba»renean, «-ua» egin ohi du. Arri-gorriagan jaioa eta frantziskotarra, erlijiosoak komentuetatik atera zituztenean, Markinan eman zuen denboraldirik luzeena eta hemen hasi zen euskaraz idazten ere. Markinaldeko azpi-euskalkiz idazten du MARIJAREN ILLA behintzat, baina Mendebaldeko bizkaieraren zenbait forma ere tartekatu ohi ditu.

Prai Bartolomek, herri-euskararen kontsonante trukaketa batzuk bere idazlanetan isladatzen dizkigu: r, b, d, g, kontsonanteak errez trukatzeko ditu: la beti *bidaua* idazten du eta ez *biraua*; *errromedija*, ez *errromerija*; *laudeun*, ez *lareun*; *begaz*, ez *beraz*; *jadichi*, *Qzjarichi*; «baso asto batzuc *dimrijeela*»; *iruneco* zapijac, *arin* onian; *gobait* eguin bagaric, etab.

Kontsonante-pilaketa bitxi batzuk ere nabari zaizkio: «vitzi» horrela idatzi ohi du gehienetan eta ez «bizi»; «emon deuschub-nac»; «dacuszu»...

Morfologia saila

Pluraleko erakusleetan idazle guztiok (baita Anibarrok ere), «e» bikoizdun formak darabiltzate: *oneec*, *orreec*, *areec*. Singularreko 3. gradukoa a, ataco, atati (c) (J. Antonio Mogeleg eta Prai Bartolomek beti «k» gabe amaieran). Anibarrok, ablatibo zaharra

(-ric) darabil gchienetan. Biziduna dñean, Prai Bartolomck -*ganic*, ez -gandic «Santu andi a ganic...». Anibarrok, ablatibo zaharra (-ric) ez darabilenean, «-k»rik ez dio eransten amaieran: «becatu eguin da bertati»; «ni ccer bere eceti sortu nindozun». Mogelek (Juan Antonio) «aen» forma ere badakar, baina idazle hauen ohizko forma «arecn» da. Beraz, argi dago *oneik*, *orreik*, eta *areik*, bizkaierazko tradizioan bat ere sustrairik gabeak eta orain-tsuko berrikeria hutsak direla.

«-ti» / «-tic» bikoteen artean gertatzen dan alternantzia berbera dugu «-gaiti» / «-gaitic» bikoteen artean ere. Anibarrok zantzantza ageri du kasu honetan: «orregaiti» baina baita «mesedea-caitic». L. Mitxelenak, ohi duen bezela, sakonki aztertzen du puntu hau bere *Fonetica Histdrica Vasca* liburu mardulean. Ikus 236, 237 orrialdeak. Goian aipatu dugunez, Afiibarro da ablatibo zahar polittaz baliatzen den ia bakarra. Ikus ditzagun zenbait adibide: «ondo dakizu zuc (...) liburu santuen *iracurtzeric* arimari sortu ta etorri yoakezala onura, irabazi, ta zorion ugari gozoac» (*Escu Liburua* 3. orr.).

«Ecin esan lei, liburu on orreec ceimbat becatari gaihso, Deabruaren *escuperic*, eta bere agintza gogor *gogai-carriric*, edo orretaraco bide *labaneric* atera ta, ecarri izan dituezan ondutera, eta ceruraco bide artecean ibiltera» (*Escu Liburua* 3. orr.).

Oraindik forma zaharragoaren arrastoa ageri da adibide honetan: «(...) *yoshereanic* eta arratsera eguin bear dozuzan gauzac» (*EL*. 5. orr.).

Mugagabea maisuki erabili ohi dute idazle hauek, Prai Bartolomek bereziki:

«iTa au onan izan ezquero, esango dau, Evanjeliuma sinistuten *davenec*, edo Eleisa Araa Santiaren *semec*, alaco dantza galdubeetara bere guraz juatia, ezdala pecatu?» (*Euscal-Errijetaco Olqueeta ta Dantzeen Neurrizco-Gatz-Ozpinduba* 102. orr.).

«Ezin *compesorec* pecatubeetati librau legi, alan pecatu dan ocasinoe jaquinera, bere guraz doiana, ocasinoiari isteco verbia emon artian» (1. cit. 103. orr.).

«Ez Obispoc, ez Curac, ez Erreguec, ezjuecec ez deutsa inori eguinduten, ez piestara juateco, ez naasteco dantzaan sartuteco» (1. cit. 147. orr.).

Zalantzako kasu bi deklinafoiden

Bata pluraleko datiboa edo ZERI kasua da; eta bestea ZEGAZ edo ZEREKIN (instrumentala eta sozietatiboa nahasirik daude):

ZERI =kasua, pluralean «-ai» da eskuarki idazle hauengan. Noizean behin, «-ei» idatzi arren, hura dute ohizko forma Ani-barrok, Uriartek, Astarloak, Juan Antonio Mogelet eta Prai Bartolomek. Juan Jose Mogelet, oster, gehienetan «-ei» forma darabilela dirudi.

Instrumental eta sozietatiboa (ZEGAZ/ZEREKIN), singularrean ez dago zalantzarik eta pluralean ere mendealdeko bizkaieran behintzat ez: «-agaz» (sing.) / «-acaz» (pi.). Ekialdeko bizkaieran, ordea, «-agaz» (sing.) / «-aquin» (pi.) dira ohizko formak. Gaur eguneko hiztun arruntak ere -instrumentala izan nahiz sozietatiboa izan- horrelaxe bereizten ditu singularra eta plurala. Hala ere ekialdeko idazle zahar hauetarik Prai Bartolome da bakarrik arau hori beti-beti betetzen duena eta «Manual Vascongado que contiene el modo de administrar los Santos Sacramentos» liburutxoaren egilea ere bai. Juan Antonio Mogel, Juan Jose Mogel eta Uriarte-k «-acaz» formara jotzen dute ia beti; bestelakorik inoiz itzuriz gero, salbuespentzat jo beharko genuke:

«Zazpi semiacaz» (Juan Jose Mogel: *Baserritaar Jaquitunaren Echea Escolia* (279. orr.)).

«Esquiniricuacaz» Juan Jose Mogel: 1. cit. 425, orr.).

«Verba errazacaz» (Peru Abarca 85; orr.).

«Beguijacaz» (Peru Abarca 85, orr.).

. «Ardijacaz» (Peru Abarca 109, orr.).

«Escubaquin, yeguijaquin, ta arpeguico geriagaz (...)» (Prai Bart.) «Batian dantza lucian arin aringa gorputzaquin alcar jotzen.

Bestian pandangoan nos arpeguijaquin, nos besuaquin, nos sabe-
leequin, nos albuaquin alcar ez joko bai joco nesca ta mutil (...) (Prai Bart.)

Partikula berezлак

«Baldin» partikula, idazle hauek erabiltzen dute, maiztasun handirik ez badu ere. Esaldiaren hasieran jarri ohi dute, orain ohizkoa den «baldin ba...» bikotea hautsirik eta tartean beste elementuren batzuk sarturik:

«Baldin mesederen bat onetan eguiten badeutsut...» (Afiib. 6. orr.) «(...) baldin eureen egem plu gaistuagaz lotsaturic, Jaungoico guztioen gurasuari laguntasuna escaturic, sendatuten ezpada (...)» (Juan Jose Mogel 23. orr.).

«Cerren» partikulaz ere ez dira txitean-pitean baliatzen, baina harira datorrenean badakite erabiltzen. Ondoren datorren aditzak «-en» bukaera hartuko du eta ez doa, Iparraldeko idazleengan bezala, «bait» aurrizkiaz lagundurik:

«Cerren, neque бага soluac ez dabeen emongo laarra ta bedarraz, besterik» (Juan Jose Mogel 27. orr.).

«(...) bana alperric, cerren bartatic biurtu zan lenagoco pecatueta-ra». (Uriarte: «Marijaren Illa» 32. orr.).

Esaldi kontsektiboetan, «ain... ece» / «ain... ce» etab. erabiltzen dituzte:

«Etzirean nombaite-bere alperrac izan ene celan alango lanac ece bietan arguiratu orduco, beingoan, arrapaca leguez saldu zirean liburu guztia» (Afiib. 6. orr.).

«Beinbaten ain vici ta gogor artu eban esetsi edo tentacinoiac ece, cer eguin, ez nora jua ez equijala, sartu zan elessa baten» (Uriarte: 17. orr.).

«(...) eta egun baten alaco erreguac eutsazan juateco bazcaritara bere echera ece, azquenic jua zan» (Uriarte: 13. orr.).

«Beste batzuc, ain dira condicinoe latcecuac, estubac,

iraacijac eta sicubac ece, uste davee olgueeta guztiaz diriala chaarrac» (Prai Bart. 16. orr.).

Idazle hauengan, ckialdekoengan batipat, maiztasun handiko beste partikula bat «CHITO» da. Esanahi bereko bestc partikulak «oso», «guztiz» etab. nekez agertzen dira.

Aditzetan, ohitura adierazteko, «eroan» eta «etorri» sartzen dituzte partizipioaren ondorik; partizipioa iragankorra denean, hura; eta iragangaitza denean hau. «OI» partikulaz ere baliatzen dira, aditz trinkoekin ere bai. Ikus ditzagun zenbait adibide:

«(...) ezta ezdaquianic, liburu santuen iracurtzeric -arimari sortu eta etorri *yoaquezala* onura, irabazi, ta zorion ugari gozoao (Anib. 3. orr.).

«Alanche esan *daroe*, baita ondo bano obeto, gure Bizcaitar baserritarrao (Anib. 6. orr.).

«Nic, egunoro gosaritu, bascaldu ta apalduten dodan baisen ciur, eguin *damadaz* goiseco escarijac» (Peru Abarca 67. orr.).

«Arpeguijan aguertu *oi* da ascotan nor celangua dan» (Peru Abarca 72. orr.).

«Or *oi* zabiltzee jaquituriya ustiaz, gaisuac cer daben igarri ecinic» (Peru Abarca 83. orr.).

«(...) ta alcarrenleijan *oi* ciran servidu gura citubeenac» (Juan Jose Mogel 200. orr.).

Adizkiak

Aditz trinkoen erabileran maisu haundiak ditugu hauek. Berez-berez zerizkien lumatik, baina oraingoan aditz laguntzailearen zenbait forma arakatuko ditut, saltsarik handienak hor ematen baitira bizkaierazko idazleen artean.

Aditz iragankorren pluralgileetan sortzen dira arazorik handienak eta nahasketa ugari ere bai. Pluralgilea «-it» dutenak eta bestelako formak ditugu aurrez-aurre zein-zeini

nagusituko:

dodaz	ditut	nebazan	nituan
dozak/n	dituk/n	heuazan	hituan
dauz	ditu	ebazan	zituan
doguz	ditugu		genduzan
dozuz	dituzu		zenduzan
dozuez	dituzue		zenduezan
dabez	ditue	ebezan	zituen

in ere bietarikoak entzuten dira:

joadaz	jittuat
jozak	jittuk
joaguz	jittuagu
joezak	jittuek

Adizkirik erabilienei bakarrik gagozkielarik, hauek dira herriaren ahotan eta batez ere idazleen luman elkarren lehian eta zein-gehiagoka ditugun formak. Hala ere nahiko argi dago zeintzuk diren bizkaierazko tradizio zaharrean ondo sustraituak eta zeintzuk atzo goizeko berrikeriak. Bizkaiera idatziaren tradizioa «-it» pluralgilea duten adizkien aide dago bete-betean, besteak oraintsu (ia geure egunotan) sartuz eta toki eginez doazelan. Ekialdeko bizkaieraz idatzi zutenek markatu dute bidea, aipaturiko formak hautatuz. Juan Antonio Mogeleg autortzen du bai, Bizkaian ez direla forma berberak erabiltzen toki guztietan: «En algunos pueblos del Senorio (puedo citar a Lequeitio con sus anejas) se conjugan así estas locuciones: Nic eguin nebazan, ac eguin ebazan, guc eguin guebazan, aec eguin ebeezan». Ez du txartzat ematen hautapen hau, baina berak beste bidetik jotzen du. Anibarrok, mendebaldekoa izanik, *dodaz*, *doguz*, *dozuz*, eta *dozuez*, darabiltza, baina ez *dauz* eta *dabez*; *dituz* eta *dituez* pluralgile bikoitzez baizik.

Iraganean ez du *nebazan*, *ebazan*, *ebezan* erako formarik erabiltzen; hauen ordeaz, pluralgile bikoak darabiltza: *nituzan*, *zituzan*, *zituezan* «*zaitudaz*» eta horrelaxe, pluralgile bikoitzez jar-tzen du.

Juan Jose Mogel eta Jose Antonio Uriarte, ekialdeko biz-

kaieraren aldean daude bete-betean. Aztertzen dihardugun adizkiei dagokionez ere, ez dago zalantzarik, baina pluralgile bakarreko eta bikoitzeko formak txandakatzen dituzte. Horretan ez dirudi idaz-arau zehatzik dutenik. Hona zenbait adibide:

«(...) artuten *cituen* nequiacgaitic» (Uriarte: «*Marijaren Illa*» 9. orr.).

«Nun *dituc* eure errezuac?» (Uriarte: L. cit. 10. orr.).

«(...) atrapetan *ditue* (...)» (Uriarte: L. cit. 21. orr.).

«(...) ascaturten *ditue* catiguao» (Uriarte: 22. orr.).

«Baldin orainche bertatic artuten ez *badituzu* onduteco gogo ta asmo senduao» (Uriarte: 31. orr.).

Pluralgile bikoitzez

«Icentatu *cituzan*» (Uriarte 9. orr.).

«Presondeguijetan igaroten *dituezan* penaac» (Uriarte 21. orr.).

Juan Jose Moglek ere bietarikoak darabiltza: *ditubee* / *ditubeez*; *cituban* / *cituzan*; *citubeen*; *nituban*; *dituguz*; *dituzubeez*...

Juan Antonio Moglek eta Prai Bartolomek, pluralgile bakarreko formak eta «-it» elementudunak darabiltzate beti. *Neukez* eta *leukez* ere ez dira ageri bi hauen idazlanetan, *nitunque* eta *litunque* baizik.

Aditz laguntzaile iragankorraren NORI adizkia dugu (orainaldian) nahasketa-bide. Bizkaiera idatziaren tradizio osoa hautsi nahirik, *DAUTZAT* / *D.4LTSAZU* / *Dy4l£KU* etab. Irakur daitezke gaur egun edonoh. Hala ere, inolako tradiziorik gabeko berrikeriak dira, eta beraz, baztergarriak. Ez dago esan beharrik *DEUTSAT* / *DEUTSAZU* / *DEUTSAGU* / *DEUSKU* / *DEUTSU* etab. direla formajatorrak. Orainsu, norbaitzuk beste bidetik hasi diren arte, aide bateko nahiz besteko bizkaitar idazleek erabiliak. Egia da, bizkaierazko zenbait azpi-euskalkitan, «u»ren eraginez batipat eta gutxiago «i»ren eraginez, aurreko «a» «e» izatera etorri ohi dela, «au» diptongoa «eu» bihurtuz: gaur-/geur; aurre/eurre; hauts/heuts; lauso/leuso; pentsau/pentseu

etab. Bizkaiko ekialdeko azpi-euskalkian, oster, ez da honelako itxurarik gertatzen, ingurune horretan behintzat. Beti mantentzen da «au» diptongoa. Beraz, aditz laguntzaile iragankorren NORi adizkiak -euskara mintzatuan laburturik eta aditz nagusiari loturik ahoskatu arren- Markinaldeko idazle zaharren idatzietan DEUTSUT / DEUTSUGU / DEUSKU etab. dira beti; sekula ere ez DAUTSUT / DAUTSUGU etab.

Eta zin daiteke ihardetsi bokala («a») itxi denik, azpi-euskalki honetan ez baita inoiz ixten. Iparraldekoek erabili ohi duten DATXEKIOLA (gaztelaniazko «adherido» /«unido»), oster DAUTSOLA. Egoki zuzentzen du S. Altubek, Azkuek puntu honetan egindako errakuntza, honeri morfologiaren oharretan. Ikus dezagun goian aipaturiko hitz bien bereizketa garbia Prai Bartolomeren texto batetan:

«Oin bijac laban eguinda, placiaren erdijan jausita guertut-
ten dira andrazcuac, inoc beguiratu biar ezdewtseen modub-
ban, escuti dawtsanac jaso artian» (E *Errijetaco Olqueeta ta
Dantzeen Neurrizco-Gatz-Ozpinduba* 69. orr.).

«Edo mutil bat nesca biren erdijan, alcarri dawtseela,
esandan moduban» (L. Cit. 73. orr.).

«Eztarrija, corcamistia, ta oni dawtsazanac» (J. A. MO-
GEL: «Peru Abarca» 86. orr.).

Lehenaldiko eta orainaldiko erlatibozko adizkietan bada ez-
berdintasun txiki bat idazle hauen artean:

etorri cirian (J. A. Mogel; Prai Bartolome etab.).

etorri cirian (Aftibarro)

etorri ciran (Uriarte; Juan Jose Mogel, etab.).

NIre eritzi laburra

Edozein aldizkari nahiz egunkaritan bizkaieraz idatzirik da-
tozen lanak begi zorrotzez aztertzea baino ez dago, saltsa lodie-
giak daudela eta batasunik eza dela nagusi -konturatzeko. Eta
hori, ortografia eta morfologia aldetik batez ere.

Deklinabidean arazo handiegirik ez dela sortzen esan behar.

Kontsonantez amaituriko izen nagusietan, behar bada... Oiza ala Oizera? Eibarra joan ala Eibarrera joan? Azkue eta Txillardegi lehenengoaren aide daude... Euskaltzaindiak biak zilegitzat eman ditu.

BA TZUK plural bezala deklinatzen da edo ta hala deklinaturik ikusten dugu gehienetan. Plurala, hitz horren edukia, lehenago aipatu delako edo, ezaguna denean izango da; gehien-gehienean mugagabea izango da. Beraz BATZURI / BATZUREN / BATZURENTZAT etab. deklinatu beharko lirateke, BATZUEI / BATZUEN / BATZUENTZAT etab. ezagunak (pluralak) direnerako utziz.

GIZONAI ala GIZONEI? Bizkaierazko idazle zaharrak lehenengoaren aide daude, baina euskalki guztietakoak kontutan hartuz gero, hau omen da zabalduena...

Adizkiei gagozkielarik, DAUZ / DABEZ / NEBAZAN EBAZAN / EBEZAN ekarri DAUST / ekarri DAUTSUT / ekarri DAUSKU etab. zeharo baztergarriak dira nire eritziz, ez baitute bizkaiera idatzian inolako sustrairik ez oinarririk.

Luis Baraiazarra